

## EUSKOTRENEK APIRILAREN 27AN ETA 30EAN ETA MAIATZAREN 4AN TRENEN GAUEKO ZERBITZUA INDARTUKO DU TRAÑAKO SAN PRUDENTZIO JAIK DIRELA ETA

Euskotrenek apirilaren 27an eta 30ean eta maiatzaren 4an Zaldibar-Amorebieta tartean gaueko trenen zerbitzu berezia eskainiko du Trañako San Prudentzio jaiak direla eta.

Apirilaren 27tik 28rako eta maiatzaren 4tik 5erako gauak, gaueko ohiko zerbitzua (ordu birik behin) Zaldibar eta Amorebieta artean tren bereziekin indartuko da jaietara joan-etorriak errazteko.

Era berean, apirilaren 30etik maiatzaren 1erako gauean Zaldibar-Amorebieta tartean zerbitzu bereziak eskainiko dira. Hori dela eta, tarte honetan gau osoan zehar zirkulazioak egongo dira.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete. Horrez gain, informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan, Konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunean, twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean eta APP ofizialean.

Igorpen data, asteazkena, 2019ko apirilaren 24a